



Identificación

Código del registro: 1168607

Cod. Referencia: ES CAV

Nivel de descripción: FUNTSA

C. Clasificación: ED - HEZKUNTZA

Título: HEZKUNTZA

Fecha Inicio: 1812/03/19

Fecha Fin:

Soporte: Papera / Elektronikoa

Volumen:

Contexto

Productor: 57 - HEZKUNTZA

Historia Institucional:

Spainia Europarekin hainbat alderditan alderatuta atzean zegoenez, estatuko hezkuntza publikoa ez zegoen inguruko beste herrialde batzuetan bezain aurreratua. XIX. mendera arte ez zen instrukzio publikoa, pertsonaren hezkuntza osoa ahalbidetuko zuen erakunde gisa, arautzen hasi. 1857ko Moyano Legearen bidez Espainiako elizak hezkuntzan zeukan eragin handia mugatu nahi izan zen, lehen eta bigarren hezkuntzan hezkuntza pribatuari lotutako legeak jarri nahi izan ziren eta bigarren hezkuntzan metodologia zientifikoagoa ezarri nahi izan zen. XX. mendearen erdialdean, diktaduraren bidez erlijio- eta politika- eta aberri-izaera zuen hezkuntza finkatu zen baina, aldi berean, postulatu europarragoetara hurbiltzeko kontzientzia berria sortu zen. Hori guztia 1970. urteetan hezkuntza-sistemaren erreforma sakonagoa egiteko erabakiarekin amaitu zen. Hezkuntzaren Lege Orokorra (HLO) aldarrikatu zenean, sei urtetatik hamalau urtera arte derrigorrezko hezkuntza orokortu zen eta hezkuntza estatuaren subsidiario izan ez zedin banaketa bilatu zen. Hezkuntzari buruzko Lege Orokorra Espainiako hezkuntzari bultzada handia eman zion. Enbor komuna sortu zen, OHO, 8 urteko iraupenekoa. Hezkuntzaren ohiko sistemari LZ sartu zen eta horrek unibertsitatearekin zuen lotura. Lehen aldiz espainiarrak derrigorrezko mailetan eskolatuta zeuden eta ebaluazio jarraituaren kontzeptua sartu zen. Demokrazia iritsi zenean eta autonomien estatua sortu zenean, hezkuntzako eskumenak Eusko Jaurlaritzari transferitu zizkioten. Irailaren 26ko 2808/1980 Errege Dekretuaren bidez EAEko Administrazio Autonomoari hezkuntza-arloko eskumenak transferitu zizkioten eta, hala, 1980ko abenduaren 30eko dekretuaren bidez hezkuntza-arloko Transferentzien Batzorde Mistoaren akordioa, 1980ko irailaren 25ekoa, argitaratzea onartu zen. Hezkuntza-arloko eskumena estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren (EAE) artean partekatutako eskumen bat da. Estatuari hezkuntzarako eskubidearen oinarritzko araudia onartzea dagokio eta, Autonomia Erkidegoari, berriz, araudi hori garatzea eta gauzatzea, kontuan hartuta hezkuntzaren zerbitzu publikoa arautuko duten arauak onar daitezkeela. Halaber, hezkuntza-sektorearen funtzioak gauzatzea Autonomia Erkidegoari dagokio. Autonomia Erkidegoa ikastetxe publikoen titularra da eta ikastetxe publikoetako irakasleen eta administrazio- eta zerbitzu-langileen ardura ere berari dagokio. Estatuak hezkuntzaren arloan emandako oinarritzko araua Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Legea da, besteak beste, ikasketen antolamendua eta irakasleen araubidea erregulatzen ditu, baita ikastetxeetakoa eta horien barne-antolamenduari lotutakoa ere, eta, horrez gain, hezkuntza-sistemako ebaluazio-erregimena arautzen du. EAEko hezkuntza-arloa erregulatzen duen arau nagusia Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legea da. Ikasketen antolamendua izaera komunarekin ezartzen da eta haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta derrigorrezko bigarren hezkuntza, nahitaezko mailak eta doakoak, barne hartzen ditu. Bigarren hezkuntza derrigorrezko bigarren hezkuntzan eta postderrigorrezko bigarren hezkuntzan banatzen da. Honako hauek osatzen dute postderrigorrezko bigarren hezkuntza: batxilergoak, erdi-mailako lanbide-heziketak, erdi-mailako arte plastikoen eta diseinuaren irakaskuntza profesionalek eta erdi-mailako kirolaren irakaskuntzek. Goi-mailako hezkuntza, unibertsitateaz gain, honako hauek osatzen dute: goi-mailako arte-irakaskuntzek, goi-mailako lanbide-heziketak, goi-mailako arte plastikoen eta diseinuaren irakaskuntza profesionalek eta goi-mailako kirolaren irakaskuntzek.

Historia Archivística:

Agiriak antolatzeko oinarritzko tresna gisa, sailkapen erabilgarri eta organikoaren koadro bat ezartzen da, mamian jarduteko arlo nagusi bakoitza definituz. Hezkuntza da eremu horietako bat, aldi berean 10 sekziotan banatzen dena, beste horrenbeste funtzioekin identifikatuak. Hezkuntza-arloko eskumenak transferitzearen ondorioz, ordura arte Hezkuntza Ministerioaren mendeko probintzia-ordezkaritzetako agiriak EAEko Administrazioaren Artxibo Orokorra transferitu ziren. Beraz, Eusko Jaurlaritza sortu aurreko agiriak egon badaude.

Forma de Ingreso:

Ohizko transferentzia



Contexto

Contenido y Estructura

Alcance y contenido:

Hezkuntzaren, araubide orokorreko, bereziko eta arautu gabeko irakaskuntzaren, zientzia-politikaren, ikerketaren eta unibertsitateen sustapenaren arloko eskumenak baliatzean Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioak egindako agiriak taldekatzen dituen funtsa. Eskumen horiek eskumen-arlo hori esleituta izan duten zenbait sailek eta erakunde-administrazioak gauzatu dituzte.

Fecha propuesta de expurgo (NO PREVISTO):**Notas:****Descriptorios:**

HEZKUNTZA

Onomásticos:**Lugares:**

Condiciones de Acceso

Acceso y reproducción:

Eskuratzeko librea. Erreproduktzioa Artxibo Sistemaren Arautegia ezartzen duen 2005eko abenduaren 19ko Aginduan xedatutakoaren menpe egongo da (2006-02-17ko 34. EHAA)

Estado de conservación: Ona**Lengua/Escritura de los documentos:**

Gaztelaniaz / Euskaraz

Características físicas y requisitos técnicos:**Instrumentos de control/descripción:**

Documentación Asociada

Originales y Copias:**Unidades de descripción relacionadas:****Nota de publicación:**

Control de Descripción

Fecha de descripción: 2008/04/21**Archivero:** TORRES BILBAO, MIREN ESTIBALIZ**Revisión:****Reglas o Normas:**

ISAD(G) 2000